

Karkara

karkara.eus

❖ Orioko eta Aiako aldizkaria • 2019ko apirilaren 26a • 405. zenbakia



“Bataio modukoa izango da Orioko kontzertua”

Olatz Zugastirekin jardun gara solasean zenbaki honetan: “Euskal kanta tradizionalekin asko ikasten da, herri baten imajinarioa esaten den hori”.

Villar Autobusak
Bidal nazionalak eta nazioartekoak
83 eserleku



Autocares Villar
Orio (Gipuzkoa)
Tel: 609402537
Email: autocaresvillar@yahoo.es
www.autocaresvillar.com

garay
manufacture

SUKALDEAK

www.garay.eus
1989tik sukalde altzarietan lanetan

HITZORDUA ESKATU ETA
LANTEGIRA HURBILDU
Olabeia aldea 1
(Errotaberrri industrialea)
20.800 Zarautz
943 13 31 09

JARRI PUBLIZITATEA
KARKARAN
688 859 682

ZINKU
ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzan erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe*

Ander Zinkomagi
667 740 279

Moda eta osagarriak
moda giza zaharkit!



Garbise Arroyo
Nerbio plaza, 5 - Orio • 635 706 265

Usurbil Autoak
Zumartegi Industrialea, Aitzearra kalea, 24
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
usurbilautoak@gmail.com
Tel: 943 36 10 79

SALMENTA - MEKANIKA - KARROZERIA

677 109 902 usurbilautoak@gmail.com

PANZA XEKA 	TALENTO 	QUIRO 2 
SOOK 	SPORTAGE 	SORENTO 
STONIC 	NABO HYBRID 	

Sagasti
LEIHOAK

Tel: 943 13 00 77 - Fax: 943 53 71 30
sagasti@sagastileihoak.com
Arantzak kalea, 83
20810 Orio

Kalitatezko materialak
PVC eta aluminioa • Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua
www.sagastileihoak.com

Joseba
AROTZEGIA • CARPINTERIA

687 683 427
josebaarotza@gmail.com

- ATEAK
- ZOKALOK
- ARMAIRUAK NEURRIRA
- LEIHOAK
- ESKAILERAK
- AROTZEGIA OROKORREAN

Gale Bask S.L.

BERRIKUNTZAK HANDI ETA TXIKIAK

- Lurak-komunak-sukaldeak-terrazak
- Pintura lanak
- Igeltzeritza
- Iturgintza
- Elektrizitate

Kale Nagusia, 2 - behea (20810 Orio)
Tel./Fax: 943 134 717
Mugikorak: 638 610 343 / 638 610 349
galebask@hotmail.com

XS arkitektura

obrak
proiektuak
erehabilitazioak
txostenak
eraikuntza zerbitzuak
ITEak
erakinen mantentzea

Kaldero Aguirrearen 101, 1. solairua
20081 Orio
Tel: 943 15 17 22
Fax: 943 12 43 53
www.xsarkitektura.com



405

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Erredaktore burua

Ainara Lasa

Erredakzio taldea

Jon Agirresarobe
Onintza Aiestaran
Aiora Larrañaga
Dorleta Agiriano
Miriam Garcia
Iñigo Exposito
Iñigo Gaiton
Jon Garate
Elizabete Manterola
Intza Unanue
Rikardo Uzkudun

Publizitatea

Sonia Albizu

Ale honetako

kolaboratzaileak

Mikel Iruretagoiena
Xabier Etxeberria
Mikel Borda
Uxoia Zulaika
Ana Gonzalez de Txabarri
Iker Gurrutxaga

Diseinua

Saioa Perona

Banatzaileak

Manex Dorronsoro (Orioko)
Nadeth Arruti (Orioko)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Antza S.A.L.
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.450 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan edota iritzien erantzukizunik. Karkaran argitaratutakoa berreman daiteke, osorik

TOKIKOM

2015 **B**ikam
euskararen
karitate zuzartagria

LAGUNTZAILEAK:



Aiako Udala



Orioko Udala

Gipuzkoako
Foru Aldundia

Hasi bertsotan atalean puntuka arituko dira bertsolariak. Oraingoan, Mikel Iruretagoienari jarri dio puntua Egoitz Eizagirrek: *Hauren bertso eskolak hartu du indarra*. Hurrengoari ere jarri dio puntua.

PUNTUA JARRITA

MIKEL IRURETAGOIENA (DOINUA: BALEAREN BERTSOAK)

1

Hauren bertso eskolak hartu du indarra,talde batekin nabil
ta ez da bakarra,
bertso berria sortuz
ta ikasiz zaharra,
Orion bazegoen
honetxeh beharra.

2

Bertsotan ikasteko
nolako giroa,
Ganix, Inhar, bi Oier,
Etxahun, Aroa,
Xabat, Ibai ta Iago,
talde oparua,
ziurtatuta dugu
herrian geroa.

3

Bertsoa zuretzako
bada harrigarri,
ametsetan oholztan
bazabiltza sarri,
gogoa, ilusioa
etxetik ekarri,
gonbidatuta zaude
gugana etorri.

Bertso-eskolako haurrak.

Hurrengo bertsolaria:

Iñaki Larrañaga

Puntua:Panderoak baditu
milaka zirrikitu,EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Burgosera irteera

Zaharren babeslekutik eskurtsioa antolatatu dugu Burgosera, maiatzaren 22an.

Egun pasaren barruan, bazkal ordura arte denbora librea izango dugu Burgos hirian ibiltzeko. Ondoren 14:00etan Mesón El Cid jatetxean bazkalduko dugu, katedralaren aurrean.

Honakoa da menua:

- Langostino kurruskarien entsalada berberetxoekin eta zitrikoen olio zpinarekin.
- Marisko-pastela
- Txekor-masailak ardo-saltsan patata panaderekin
- Izozi beroa laranjazko karameluarekin
- Edariak eta kafea Txartelak maiatzaren 13an erosi beharko dira, 16:00retatik 18:00retara bitartean, 35€ren truke.

Irteera berriz, maiatzaren 22an izango da, goizeko 8:30etan

- **Zaharren babeslekua**

Ahalduntzeari buruz

Martxoak 8, greba feminista. Goizeko 9:00ak jo dute. Taldetxo batek Balea Elkartean gosaldutako dugu eta bagoaz Bikamiotara bidean herria esnatzera.

Gure pozerako dagoeneko emakume taldea prest dago. Orioko 100 emakume inguruk hartu ditugu kaleak zalaparta atera eta greba feminista aldarrikatzeko. Momentu hunkigarria bizi dugu Itsas-etxean eguneko zentroko zaintzaileak leihora atera direnean. Beren zarata eta aldarrikapenekin dianara batuz, beraiek baitira grebaren aldarrikapenen subjektu politiko, beste emakumeekin batera.

Eguna aurrera joan ahala emozio horiek ez dira itzaltzen joan. Goizeko diana, mural margoketa, Donostiako ekintzak, arratsaldeko manifestazio jendetsua eta emakume afari arrakastatsua. Guztiak jendetsuak, uste baino jendetsuagoak.

Hau dena ez da egun bateko

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo erredakziora eskura ekarri - Orioko edo Aiako Kultur Etxean - edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

kontua izan. Bi hilabeteko prozesuaren ondorio da greba feminista. Emakume anitzek parte hartu dugu prozesu osoan: bilera irekiak, pankarta pintaketak frontoian, hausnarketa kolektiboak...

Handia izan zen, zerbait handiaren hasiera. Egunak argazki itzelak eman zituen. Guk horrela bizi izan genuen behintzat.

Martxoko Karkara gure postontzietan jaso genuenean ezustekoa hartu genuen. Azalean ahalduntzearen ideia pole dance-arekin lotu zen, Orioko emakumeon ahalduntze kolektibo prozesuari aipamenik egin gabe. Martxoaren 8ak Orion izan duen tokia ez da Karkarako martxoko zenbakian islatu. Eguneko argazkiak bazeuden ere, goizekoak bakarrik argitaratu ziren, ez zen manifestazioko argazkirik agertzen eta egunari aipamena egiten zion testua eskasa iruditu zitzaigun.

Kontziente gara pole dance-aren artikuluaekin emakumeon ahalduntzea jarri nahi izan zela erdigunean, baina emakumeon ahalduntzea diskriminazio patriarkal egoera baten kontzientziatik abiatzen da eta emakumeon ahizpatasuna eta kolektibitatearen garrantzia azpimarratzen ditu. Ana de Miguel filosofo feministak ondo adierazten

du: *Feminismoa ez da dena sar daitekeen saski-naski bat. Emakume bati ahalduntzen, dirua irabazten edo ondo sentitzen laguntzen dion edozein ekintza ez da 'feminista'. Feminismoa pentsamendu kritikoaren tradizioa da, non ikuspegi aniztasuna ezin den 'denak balio du' horrekin identifikatu.*

Orioko emakumeok ahalduntze kontziente batetik mobilizatzen hasita gaude, gure artean sareak sortzen, espazio publikoak hartzen, gure aldarrikapenak gure egiten. Zaintza eta bizitza erdigunean jartzeko ibilbidea hasi dugu eta ez dago atzera bueltarik. Bidea luzea da baina martxoaren 8ak argi erakutsi zuen Orioko emakumeon gogoia eta indarra. Herriko hedabideak horren isla izan behar du. Bidelagun izan behar du.

• **Orioko Xaltxerak Emakume Taldea**

Berrerabili 'Seguir sin tí'

Gipuzkoako Urola Kosta eskualdean arlo sozioekonomikoa euskalduntzeko ekimen aitzindari bat aurkeztu dute Zarautzen; arlo sozioekonomikoak izaera estrategikoa du hizkuntza baten normalizazioan irakurri dut prentsan. Urola Kostako Mankomunitatea agertzen da kanpainaren sustatzaileen artean.

Seguru nago dagoeneko pauso sendoak eman dituztela bide horretan. Ondokoa proposamena da, beste urrats bat emateko. Orioko Goiko Kanean edukiontzia bat dago, Urola Kostako Mankomunitateak jarria, txukun, koloretsu. *Eraman Garbigunera* jartzen du, *Berrerabili*. Eta zehazten du: arropak, mobilak, zapatak, lehorgailuak, plantzak, jostailuak, poltsak...; liburuak ere bai, bi agertzen dira, adibide: Jorge Bucay eta Silvia Salinasen *Seguir sin tí*, eta Terenci Moixen *El día que murió Marilyn*.

Zuk ekarri, denon ongarrri, Gaurkoa nola... biharkoa hala; horrelako leloak agertzen dira Mankomunitatearen konpostaren aldeko kanpainan; leloak euskaratik

sortuak dira, errima eta guzti. Ondo legoke *Berrerabili* kanpainan ere, beste literatura batzuetako ekarpenak gutxietsi gabe, euskal literatura gogoan hartzea. Orioko *Goiko Kalen* oso nabarmen gelditzen da hutsune hori.

• **Goiko Kaletik**

Udal Hauteskundeetako hautagaiak

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak plazaratu ditu hurrengo udal eta foru hauteskundeetara aurkeztu dituzten behin-behineko hautagai zerrendak. Aiako eta Orioko udal hauteskundeetarako zerrenda guztiak ere ikusgai daude. Hiru alkategai izango dira Aian, eta lau Orion.

Aiako zerrendak

Euskal Herria Bildu (EH Bildu)

1. Iñaki Telleria Astigarraga
2. Hodeiza Sallen Molinero
3. Aitor Arregi Eizagirre
4. Gontzal Alday Salaverria
5. Irati Eizagirre Aguirre
6. Martxel Alday Salaverria
7. Amaia Iturzaeta Orbañanos
8. Jose Antonio Jaca Aldacur
9. Aritz Arruti Mintegi
10. Maitane Arrillaga Aldalur
11. Jaione Iribar Mancisidor

Ordezkoak:

Joritz Bastarrica Albisu
Haritz Izagirre Agirre

Euzko Alderdi Jeltzalea - Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV)

1. Nekane Arrizabalaga Manterola
2. Arkaitz Iruretagoyena Lerchundi
3. Iñigo Etxabe Azkue
4. Miriam Sarasola Eizmendi
5. Estibaliz Lizarreta Merino
6. Aharoa Zuloaga Mintegui
7. Asier Ibaruren Ibaruren
8. Sergio Cubero Belinchon
9. Jon Ander Azpiroz Otegui
10. Jose Antonio Idarreta Aguirresarobe

11. Maria Jose Aguirrezabala Erquicia

Ordezkoak

Francisco Javier Iribar Sarasola
Igor Iturain Ibaruren
Jose Antonio Azpiroz Arregui

Partido Socialista de Euskadi - Euskadiko Ezkerra (PSE-EE)

1. Maria Arantzazu Indo Larrañaga (independentea)
2. Valentin Elola Azpeitia
3. Antonio Lucas Azpeitia (independentea)
4. Adoracion Herrero Gomez
5. Mikel Aguirrezabal Iribar
6. Neil Mohamed Ronquillo Peña
7. Juan Luis Toledo Partida
8. Felix Cecilio Gonzalez Rodriguez
9. Leire Castañeda Diaz
10. Maria Hortensia Campos Alvarez
11. Angel Perez Moran

Ordezkoak: hautagairik gabe

Orioko zerrendak

Euskal Herri Bildu (EH Bildu)

1. Anuska Esnal Oliden
2. Ainara Munduate Iguaran
3. Xabier Ibaruren Azkue
4. Beñat Solaberrieta Albizu
5. Bakarne Oliden Albeniz
6. Bittor Andres Alkorta
7. Koldo Olariaga Larrañaga
8. Olaia Eizagirre Herrero
9. Aitor Larraza Irastorza
10. Eider Salegi Arruti
11. Laida Iturralde Larrañaga
12. Juan Vicente Lasa Carricaburu
13. Nagore Rementería Argote

Ordezkoak:

Ibon Arruti Roteta
Oihan Gozategi Urbietta
Nora Solano Salaverria
Gorka Puertas Orbañanos
Maria Nieves Arruti Iceta
Amaia Olazabal Leonet
Gotzon Igoa Aguirrezabal
Jon Agirresarobe Lopetegi

Partido Socialista de Euskadi - Euskadiko Ezkerra (PSE-EE)

1. Ana Priede Merchan
2. Fernando San Martin Gubia
3. Maria Asuncion Tena Ramirez (independentea)
4. Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa
5. Maialen Romero Blanco
6. Carlos Iraola Zubizarreta

7. Gemma Serna Portugal
8. Igor Lopez Quicios
9. Maialen Mateos Jimenez
10. Manuel Compadre Vargas
11. Cristina Sanchez Herrero
12. Juan Carlos Hernandez Garrido
13. Miren Achutegui Roncal

Ordezkoak: hautagairik gabe

Orain Orioko Aukera Independentea (Orain)

1. Jose Angel Iparragirre Alberdi
2. Jesus Maria Arriaran Elcorobarrutia
3. Igor Acero Zabala
4. Ekiñe Miralles Mugica
5. Eder Etxeverria Corta
6. Maria Cristina Luisa Salsamendi Ayestaran
7. Arantxa Manterola Lertxundi
8. Ane Miren Aguirrebeña Guereca
9. Jon Joseba Otaegui Aizpurua
10. Jaime Jose Colado Gutierrez
11. Luis Maria Aduriz Iruretagoyena
12. Iñigo Arruti Aguirre
13. Miriam Uranga Egurza

Ordezkoak: hautagairik gabe

Euzko Alderdi Jeltzalea - Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV)

1. Maria Lourdes Salsamendi Goñi (independentea)
2. Andoni Torres Martinez
3. Jon Basurko Sarasua (independentea)
4. Amaia Gozategi Urbietta (independentea)
5. Jose Javier Gomez de Segura ARCE (independentea)
6. Eugenio Antonio Cotado Iturain
7. Ainhoa Usandizaga Zubiaurre
8. Edurne Elena Etxeberria Sedano (independentea)
9. Juan Maria Irastorza Elorza (independentea)
10. Miren Elitxabet Huegun Arruabarrena
11. Maria Angeles Genova Solabarrieta
12. Leandro Azcue Mugica
13. Noemi Ostolaza Arcauz

Ordezkoak:

Jon Redondo Lertxundi
Miren Mirari Arruabarrena Elizalde
Jose Miguel Macazaga Loidi

Hildakoak, jaiotakoak eta ezkonduetakoak,
35. orrialdean ikusgai



200 kiloko harria jaso zuen Etxeberriak Apirilaren 6an.



Apirilaren 12an igaro zen 21.Korrika Oriotik. KARKARA



1998ko Aste Santua. Anjel Lizaso sakristaua matrakarekin. KARKARA

Ederra matrakak!

“Alde egin digute Aste Santuetako opor txikiek ere. Inoiz baino santuago bihurtzen garen egun hauek.”

Ortzaikako Etxeberria familiak badu errekorrez betetako armairua etxean. Gorka izan da azken errekorra lortu duena. Etxeko txikiena izanagatik, ordea, ez da txikia altxatzea lortu duen harria. Azkoitiko Gurea frontoian Goenatxo II.ari omenaldia egin zioten. Sei harri ezberdin jarri zituzten lau kubiko 100, 113, 125 eta 150 kilokoak eta errektangularrak 150 eta 200 kilokoak. Etxeberriak kubiko denak eta 150 kiloko errektangularra jaso zituen. Orduan, *momentuko beroaldiarekin* 200 kilokoarekin probatu zuen eta baita asmatu ere. Bejondeizula Gorka!

Eta bagoaz, harritik, herrira. Haur gazte zein helduak, guztiak batera euskararen alde irten ziren herriko kaleetan. Goizean goiztik nabari zen Orion kutsu berezi bat: Urduritasuna, alaitasuna, euskara. Ehunka pertsona bildu ziren 21.Korrikan, *Orio ere, euskararen alde!* lelopean. Eta konturatzerako, hainbeste denboraz itxarondako Korrika, ordu erdian sartu eta irten zen herritik.

Abiadura berean alde egin digute Aste Santuetako opor txikiek ere. Inoiz baino santuago bihurtzen garen egun hauek. Aurten ere, betiko legez, Larunbat Santuan kaletik entzun dugu Matrakak. Buelbaka eta bueltaka, kra kra kra, sekulako soinua ateratzen duen egurrezko tramankulua.

Ez da izango ordea, datozen bi hilabete hauetan soinu gehien egingo duena herrian. Aurtengo hauteskundeek ez gaituzte eta epel hotz utziko. Matrakak ederra datorkigu.

Hartu al duzu parte 21. Korrikan?



“Ahal dugun guztietan hartzen dugu parte.”

Nai noski, aurten ere izan gara. Egia esan ahal dugun guztietan hartzen dugu parte Korrikan baina bertan izan ginen azkenaldia orain dela lau urtekoan edo izan zen.

Orain bi urte gauzez izan zen eta gainera Kresal jaiotzekotan edo jaioberri zegoenez ezin izan genuen parte hartu.

Hala ere, asko gustatzen zaigu Korrika, oso oso hunkigarria da bi urtetik behin parte izateko aukera.

Leire Zinkunegi



“Ospatu beharreko festa berezia izaten da”.

Alara Korrika ez denez iristen goizean eskolako umeekin batera Korrika Txikia egin dugu gurasoek ere. Ondoren 21. Korrikan parte hartzeko Oriora jaitsi gara umeekin batera.

Oso oso hunkigarria izan da niretzat, pelotoia gerturatzen ikusteko momentu hori, furgoneta, musika eta guzti...

Bi urtetik behin ospatu beharreko festa berezia izaten da. Igandean ere Gasteizen izango gara festa giroan Korrikaren amaiera ikusteko aitzakiarekin.

Ainara Saizar



“Denok batera euskararen alde egiten dugu.”

Nai, 21.edizio honetan ere Korrika egin dut Oriotik pasatzen den tartean zehar.

Oso egun polita iruditzen zait, izan ere, haur, gazte zein jubilatutak denok batera euskararen alde zerbait egitea lortzen dugu ospakizun honi esker.

Korrika herritik igarotzen doan bezalaxe, herritarrak kalera atera eta pelotoian sartzen joaten dira, gurasoak umeei eskutik helduta, edadetuak emozioz beteta... euskara bultzatzen dugu denok elkarrekin.

Aitor Urrutia

Sinergia | fisioterapia & berkurkuntza

· Lesioak: bihurturak, tendinitisak, zointiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaitasunak haur eta heduetan, lesio neurologikook, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupeazioa.

· Tratamenduak: terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesotaping-a, pilates, abdominalefako gimnasia hipopresioaba (GAH), REDCORD



943 13 05 77
685 71 85 95

Iturri Orotia 1, 48001 - Oriotia
sinergiafisioterapia.com

Ispilu desitxuratzailea



Esposizioko irudietako bat.

Nuela egun batzuk Kultur Etxean izan nintzen. Zorione Mendezek *Marrak* erakusketa jarri du, marrazki eta grabatu ezberdinekin.

Emakumeak irudikatzen ditu, batez ere, nagusiki txuri beltzean baina baita kolorea sartuz ere. Lerroek balio nabarmena dute. Aurpegi edo gorputz errealistak baino, ikuspegi pertsonalagoa erakusten digu, subjektiboa, ikuslea eta marrazkien artean ispilu desitxuratzaile bat balego bezala.

Ohituta gauden aurpegi edo gorputzak irudikatu beharrean, konposaketa irudimentsuak bilatu ditu, lerro bihurrituez, gorputzaren kontortsio arraroak bilatuz. Eta nire ustez malenkonia puntu batekin. Baina arrarotasun horrek ederrak egiten ditu.

Koloreak erabiltzen dituenen indar handia hartzen dute marrazkiek, asko irabazten dute. Emakumeen

fazeta ezberdinak errepresentatu nahiko balitu bezala. Kasu batzuetan agerpen askotarikoak irudikatzen ditu, elkarrekin fusionatuak eta ikusleari begira, erronka moduko batean.

Marrazki serie hau ikusita, etorkizun oparoa iragartzen diot, jarraitu bide horretatik!

Kritika Marrak

Kultur Etxean ikusgai egon da Zorione Mendezek marrazkiak eta grabatuak biltzen dituen erakusketa.

UXOA ZULAIKA

Politikan ez dago gauza politikan



Xabier Etxeberria

Kennedy vs Nixon, historiako lehen telebista debatea. Politika gaur egun ezagutzen dugun moduan sortu zenekoa: itxurak baldintzatua alegia.

Lazkao Txikik esana omen da esaldi hori *politikan ez dago gauza politikan* eta, alde batera, arrazoi oso ematen diodan arren, politikaren munduak kosmetika puska ederra duenik ezin ukatu.

Gaur egun bai behintzat. Komunikabideek izugarri aldatu baitute hori (ere). Pasa den mendeko 30eko hamarkadan telebistarik izan balitz Roosevelt zaharrak –polioaren eraginez bi zangoetatik elbarrirituanekez irabaziko baitzituen lehendakari izateko hauteskundeak.

Eskerrak argazkiak (bakarrik) zeuden. Yaltako ezagun hori adibidez, Roosevelten ezker-eskuin Churchill eta Stalin eserita azaltzen direna, amerikarra aulki gurpildunean nabarmen ez lagatzeko.

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, baina, liztor asiarra baino bizkorrago zabaldu zen telebista Ameriketara eta, aditu guztien esanetan, tranpolin huraxe baliatu zuen USAk izan duen lehendakari gazte eta guapoena: Kennedyk.

1960ko irailak 26, Kennedy vs Nixon, historiako lehen telebista debatea. Politika gaur egun ezagutzen dugun moduan sortu zenekoa: itxurak baldintzatua alegia. Nixon zen faborito garbia inkesta guztietan. Beharbada

horregatik joan zen hain lasai, lasaiegi, traje gris itsusi batekin eta makillatu gabe. Kennedy, berriz, bere ezkontzan baino dotoreago eta propio eguzkia hartuta, Hollywoodeko aktore baten itxurarekin.

Debatea zuzenean irratiz eta telebistaz eman zen, eta datu bat da kuriozoso: telebista- ikusleen iritzian Kennedyk egundoko jipoia eman zion Nixon, irratientzuleentzat Nixon hobeto aritu zen ordea.

Ordutik, lezioa ederki ikasi dute bazter guztietan eta politikan aurpegi polit ugari erakusten dizkigute. Espainiako hauteskundeetan, fobia eta filia guztiak albo batera utzita, ez didazue esango lehendakari izateko hautagai ugari –Sanchez, Rivera, Casado bera- itxura oneko gizasemeak ez direnik. Eta emakumeak atsegin zaizkienentzat, begira Ines Arrimadas esate baterako, ideientatik adina bere lerdentasunagatik boto mordoxka arrimatzen duenik ezin ukatu.

Aizue, eta ez pentsa hori Ebrotik beherako kontua soilik denik. Edo Garaikoetxearen *sex-appeal* efektua ahaztua zaigu? Edo gaurko adibide bat ipintzearen, beti miretsi izan dut Borja Semperrek nola baliatzen duen bere *latin lover* piura botoak erakartzeko. Ai, baina barkatu, nahastu egin naiz, hori ez da politika, Donostia da...

Karkara³⁰ürte
karkara.eus

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidalak S.L.

Autobus litera eta
 16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
 Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943.13.28.93/83.08.80. Mugikorra: 656.78.30.01/ 656.78.29.99

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN



Pelotari 5, Orio
 943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra

urbide
 iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Bizkaia Kalea, 4
 20800 Zarautz
 943 890 069
 urbideiturginak@gmail.com
 www.urbide.es

Desatascos
 LASTER

Hodi-libraketak
 Garbiketarak presio handiko urarekin
 Saneamendu-sareen mantenu prebentiboa
 Hodiak, isurbideak eta estolderiaren ikuskatzea, kamerarekin
 Uholde urak ateratzea
 Ezkutuko kuxatilen detekzioa



688 886 536

desatascos@desatascoslaster.com
 www.desatascoslaster.com



Sagar erroka 21-A • 20590 Santesteban
 Aborramendi Sagar 3 • 20810 Orio
 Tel. 943 751 431

ELEKTRIZITATEA
Ander Expósito
 943 831 774
 600 856 728
 anderexpoelekttrizitatea@gmail.com

fontaneria-fontana.com

- Komun eta sukaldien erreforma
- Galdara eta termo elektrikoak instalatzea
- Ur-jarriak aurkitu eta konpondu
- Bainujentzia lendu eta duta jartzea
- Zoru erradiazatzea

Azkue

Tf: 943 130 438

Azkue

GARMENDIA

Higiezin Agentzia
 Ahoikularitza
 Aseguruak

info@egarmendia.com
 Tf: 943 834 466 - Fax: 943 132 941
 Ibai Ondo, 1 - 20810 Orio

K-U-K-U-A-R-R-I
 ELEKTRIZITATEA

Tel: 943 100 181
 Mobilak 640 281 308
 Zigordea, 52 - Bidea C/
 20800 Zarautz
 kukuuarri@kukuuarri.com

fontana
 iturgintza

Piazza Endala N°1, 20810 - Orio
 fontana-ju@hotmail.es
 943 539 888 • 661 262 828

ITURGINTZA - GARA - BEROGINTZA

zerbitzu teknikoak
 24 ordu

MENDIZABAL
AROTZTEGIA
*Nearriko arnairak
 eta igarlanak*

943 831 175
 645 708 491
 mendizabalgel.net

Altzari bideoak
 Berr-Aldi etxeak
 20810 Aia-Orio

IGLESIAS
SARRILAGILEAK

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
 iglesiasjv@zazpi.com/gahoo.es
20810 ORIO

- ATEAK IRKITZEN DITUJUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALGUKIEN ALDAKETA
- KOMUNITATEBENTZAKO ZERBITZUA

Seguros Bilbao

Tel: 943 111 600
 688 714 869

Endaia Enparantza, 1
 20810 Orio (Gipuzkoa)

Santi Barranco
 Orioko ordezkaria
 e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

KORTABERRI
 arotz lanak

Imanol Illarramendi
 Aia (Gipuzkoa)


kortaberri.arotza@hotmail.com
 665 70 33 47

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak - beira bikoitza
- segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Kiroldegia: Txarra eta garestia



Mikel Borda

Txikitan beti esaten zidaten lanak ez direla azken mementorako utzi behar. Dirudienez, kiroldegikoei ez zieten hori erakutsi.

Azkenaldian geroz eta argiago geratzen ari da kiroldegiak duen arazoa, prezioa eta kalitatea ez datoz bat.

Inguruko kiroldegiekin alderatuz, Donostian, kirol txartelarekin heldu arrunt baten urteko kuota 201,7 eurokoa da; 16,8 euro ateratzen da hileko. Bertako 16 kiroldegietan sartzeko aukera izateaz gain, horietako askok doako klaseak dituzte.

Orion aldiz, 25 euro ordaindu behar dira hilean, eta eskaintza txikiagoa da, muskulazio gela eta igerilekua erabili daitezke, klaseak eta beste jarduerak, padela esate baterako, aparte ordaindu behar dira.

Gainera ikasle edo langile izan berdin ordaintzen da.

Kalitateari dagokionez ere, egoera ez da egokia. Muskulazio gelako hainbat makina zaharkituta eta matxuratuta daude, eta azken urteetan kirola egitera animatu den jendea dela eta, espazioa txiki geratzen ari da.

Hortaz aparte, aireztatze sistemak ere ez du behar bezala funtzionatzen eta giro oso hezea sortarazten du horrek. Neguan hotza egiten du gela barruan, eta udan aldiz beroa. Aldageletan ere, berogailuak urte guztian tenperatura berbera mantentzen du.

Horrez gain, eguerdietan itxita egoten da, eta udan bi astez. Beste lekuetan ez da horrela izaten.

Urtean zehar iradokizunak egiteko orriak jartzen dituzte eta behin baino gehiagotan, kexarik izanez gero, bertan idazten ditugu hobetu beharreko gauzak.

Aldaketak egiten ari diren arren, hobe lukete erabiltzaileon iritzia gehiago hartuko balituzte kontuan.

Txikitan beti esaten zidaten lanak ez direla azken mementorako utzi behar. Dirudienez, kiroldegikoei ez zieten hori erakutsi.



Rikardo Uzkudun

Zer ikusi, hura...

Auteskunde garaia datorkigu hegoaldean. Udaletatik hasi eta Europako Batasunera doazen administrazioa ia guztiak aukeratuko-edo ditugu. Ez noa botoa eman edo abstenitzea zer den hobe eztabaidatzera, besteak beste, ez dudalako ikusten ipar garbia duen indarririk, sistema partidista barruan zein kanpoan; defentsiban jarraitzen dugu.

Gauza bakarra esatera nator: Euskaldunok perbertsio mediatiko bat nozitzen dugu. Telecinco edo La sexta ikusten ditugu hura eta hangoak kritikatzeko (T5k lider izaten jarraitzen du EAEn). Zenbat aldiz pentsatu ote dugu: Gu ez gara haiek bezalakoak! Espainiako politikari gehienek gezurrak ez ditugu tragatzen, haien manifestazioetara joaten diren jarrera lotsagaberik ez dugu, ez dugu oilategian bezala hitz egiten... baina haiek ikusi gabe ezin dugu eguna pasa, haien astakeriak whatsapez bidali gabe ezin gara geratu, haietaz hitz egin gabe kasik ez daukagu konbertsaziorik... eta okerrera, haiekin konparatu gabe ezin dugu gure burua ebaluatu. Horri autokonplazentzia deitzen diote psikologoen, agenda markatzea kazetariak, debaldeko propaganda publizistek. Zuek ikusi.



“Bataio modukoa izango da Orioko kontzertua”

Olatz Zugasti

Musikaria

Ur goiena, ur barrena bosgarren diskoa argitaratu zuenetik oholtza gainera salto egin du Olatz Zugastik. Harpa, musikari taldea eta bere alaba, Gratxina Lertxundi bidelagun dituela, herriz herri dabil kontzertuak eskaintzen.

INTZA UNANUE

Familiartean jo zituen gitarrarekin lehen notak. Harparen soinuk liluratuta, gitarratik harpara jo zuen. Eta saltoka beharrean, pausoka joan da musikaren ibilbidea osatzen. Orain, azken diskoa atera zuenetik, oholtza gainean dabil herriz herri, harpa bidelagun.

Herri musika beti izan da berezia zuretzat.

Bai. Gure emozioekin konektatzen gaitu eta halako zaporea bilatzen diot. Herri musikak badu zera hori, nolabait esanda, musika denen jatorria da.

Beti interesatu izan zait herri musika bere horretan

hartu eta norberak eman dakioken airearekin nola eraldatzen den ikustea.

Euskal kanta tradizionalak asko ikasten da, *Olaixa* taldearekin lan egiten nuenean ere euskalkiak ikasten genituen horrela, herri baten imajinarioa esaten den hori ezagutzen da.

Zure kantuetan jorratzen diren gaiak lotura zuzena dute zurekin?

Guztizko lotura dute. Azken finean kezka batekin edo zerbaitek kilima egin badit hasten naiz idazten. Gero hasierako ideia horri eusten asmatu daiteke, beste batzuetan ideia batetik abiatu eta beste bat gurutzatzen da. Barne borroka izaten da nondik hasi zaren gogoratzea baina askotan merezi du bide horrek.

Sortzen duzunean, hori bakarrik izaten duzu buruan?

Ez beti, batzuetan entseatzen nabiltenean gertatzen da. Esaten den bezala inspirazioak lanean harrapatzen zaitu. Halako batean akorde bat ateratzen da edo aire bat... horri tira egiten diozu, eta zerbait berezia aurkitzen da.

Sortzea ez da ezerezetik sortzen. Baina beno, nahiz eta kafe bat hartzen egon batzuetan burua hor darabilkigu, tarareatu duzun zerbaitekin edo ideia batekin edo...

Bada zerbait, norbait, beti inspiratzen zaituena?

Nik nahita bilatzen dudana zerbait ez, baina egia da behin neska batek esan zidala nire kantuak aztertu zituela, eta behin eta berriz errepikatzen zen ideia bat aurkitu zuela: menderakuntza.

Idea hau gure kasuan herri gisa baina baita ere norbanako gisa. Menderakuntza egoeratan, menderatzen zaituena dago alde batetik, baina ondoren nahiz eta zapalduta egon zaitezkeen, zure burua argi mantendu dezakezu. Jakin zer gertatzen eta horretarako argi egon behar da.

Inoiz beldurrik eman dizu zuk barruan duzuna gehiegi azaleratzeko sentsazioak?

Bai, behin Asisko Urmenetari nire testu bat erakutsi nion, inoiz egiten ez dudana, ez baitiot inori iritzirik eskatzen. Esan zidan iluna zela, zentzu ulergaitzean, azkenean adierazi nahi nuena hainbeste makillatu beharrek, ez zuela ulertu.

Gaur egun ez diot hainbesterainoko beldurrik, azken finean sentipen unibertsalak dira norbanakoak dituenak, psikologikoki ez gara hain ezberdinak, kantuetan saiatzen naiz... egia esan ez dakit, kantagintzak hori du polita. Aurreko kantuekin hartu duzun bideak agian ez duela berriarentzat balio, eta beti hasten bezala nabil.

Kanta batzuk sortzeko prozesua minututako kontua izan daiteke, besteak gehiago luzatzen dira. Zergatik esango zenuke gertatzen dela? Nabaritzen duzu emaitzan?

Benitok esan izan du eta ni ados nago horrekin, erraz atera den hori ez dela hainbeste baloratzen eta lan handia eman dizuna, sakon ibili zarela eta ideiak, forma... hobe izango dela pentsatzera iristen gara. Baina azkenean baliteke zailena entzuteko ere horixe

bera izatea.

Erraz atera den kantuak ez du esan nahi lanketa gutxiago izan duenik. Baina badirudi erraz egindakoa, erraz entzuten dela gero.

Sarri esan duzu zure pasioak euskara eta musika direla.

Txiki txikitandik maite izan dut gure hizkuntza, altxor bat dugu. Europako hizkuntzarik zaharrenetako bat da, linguistikoki oso interesgarria da. Zer esanik ez gero euskalkiak entzuterakoan, hori da musika, esaldiak nola osatzen diren... luze ariko nintzateke honetaz.

Euskaran foko handiegia jartzeak, ordea, euskaldunon kasuan, arriskua dakar, euskara hartzen baita salbatu beharreko gauza bakarra eta zerbait isolatua balitz bezala, egoera politikoak eragingo ez balio bezala. Bere *habitat* den Herria menderakuntza egoera batetan dagoela kontutan hartu gabe.

Ahalegin guztiak egingo ditugu, festak, euskalaldiak... antolatuko, baina arazoaren muinera joaten ez bagara, ukendutxo bat besterik ez da izango hori guztia. Arazoaren muina Euskal Herriaren menderakuntza da eta ondorioz, arazoaren soluzioa, askatasuna.

Norekin lotzen duzu gehiago zure burua, kantatzen duen poeta batekin edo poesia idazten duen abeslari batekin?

Nire burua nola ikusten dudana esatea... ez dakit errenazentista esaten den hori izan ninteke, pixka bat denetik egiten duena, trobadore bat? Agian... dena den olerkari izatea ez dut uste idaztearekin zerikusia duenik, ausartuko nintzateke esatera olerkari, poeta asko daudela ezer ere idatzi ez dutenak, baina bizitzaren ikuspegi interesgarri bat dutenak, ikuspegi aske bat, olerkaria bizitzan egoteko modu bat da, jarrera bat.

Inoiz pentsatu duzu zure musika Euskal Herritik kanpora eramaterik?

Saiakerarik ez dut egin egia esan. Gaur egun hor daude sare sozialak, harrigarria badirudi ere, aurreko batean nire 5 disko bidali genituen Japoniara, eskatu egin zizkiguten, baina badakit hori gauza puntuala dela, berdin kontzertuentzat.

Ondorengo ikuspegi hau ere Benitori zor diot, izan ere, alde horretatik iruditzen zait sana dela gauzei diren bezala begiratzea. Nire kasuan hautua egiten badut euskaraz kantatzeko, badu zergati bat, nire espresio naturala delako euskara eta hori egin nahi dudalako. Horrek jakina zure esparrua euskararen munduan kokatzen du. Ez nuke erabiliko mugatu hitza, izan ere hemen bihotz asko dago harrapatzeko, asko dago lantzeko.

Behatu dezagun musika orokorki.

Musika akademietan ikasi beharko litzakeela uste duzu, ala gehiago sinesten duzu norberaren bilaketan?

Askok ez dute akademikoki landu musika, baina ez du esan nahi berezkoa den jakituria horrek aurrera eramanez zaitzakeenik. Askotan akademikoki ikasi dutenak muga batzuetara daude lotuta, horrek galarazten diete hegan egitea.

Musikaria izatea jaiotzaz ekartzen den zerbait izaten

da sarri, batzuetan horren gainetik norbere kabuz lantzea posible da bide libreetatik. Akademikoki partiturak irakurtzen ikastea etab. erreminta bat da. Horrek ez zaitu musikari bihurtzen... berezkoa daukazu edo ez. Noski duzun hori jorratu egin behar dela.

Zer da musikaren munduan zirrara gehien sortu dizuna?

Une asko izan dira, baina bat gogoratzen dut, bereziki. Irratira nindoan gauez, *Kantaita* saioa egiten nuen garai hartan. Nire aurretik Pello Zabalak ematen zuen saioa, *Klasikoak gaur*. Jesús Guridiren *Diez melodías vascas* jarri zuen, saio hartan. *Alabaita*. Bertsio bat. Benetan hunkituta iritsi nintzen nire saioa egitera, eta esan nien, aldatu egingo dut hasiera eta lehenengo kanta *Alabaita* sartuko dugu. Niretzat doinu zoragarria da.

Kantaita aipatu duzula... herri musika euskalduna maite duzu baina aldi berean, irratian 12-13 urtez, munduko musika ekarri zenuen Euskal Herrira.

Madrilgo zigilu batetik inportazioko musikak ekartzen zizkidaten. Libanoko *Fairuz* kantaria ekarri ziguten, gero bat batean Mazedoniako musika, Irlandakoa... zaporea zuen musika zen.

Saio horretan ez nuen musikaz bakarrik hitz egiten, gainera, herri horren egoera sozio-politiko-kulturala ere tratatzen nuen eta asko ikasten nuen, aberasgarria egin zitzaidan aro hura.

KONTZERTUA ORION

Azken diskoarekin zuzenekoetara salto egitea lortu zenuen... Nola bizi zenituen lehenengo kontzertu horiek?

Erosotasun baten barruan sentitu nintzen, eszenario baten egoteak dakartzan gora behera guztiekin, noski. Baina oro har, ondo sentitu nintzen. Beldurra nion momentu horri baina azken finean heldutasun batekin heldu nion, eta nik barruan nuena ematea erabaki nuen, ni naizena erakustea.

Nik etxean eredu handiegia nuen, baina halako batean *klik* bat egin nuen eta esan nuen, nik naizena erakutsiko dut, ikusiko dut gero jendeari gustatzen zaion edo ez.

Zerk eragin zuen klik hori?

Pendiente nuen zerbait zen. Urte hauetan guztietan aitzakia nuen, beldur horrekin atzeratu egiten nuen beti momentua. Bestalde, Benitok zer esan handia izan du beti, berari laguntzea oso bide aberasgarria izan da niretzat. Frogak egiten, letrekin ere zer landua izaten dugu...

Beti gustatu izan zait bere bidean parte hartzea. Hori da grina, zerbait erakusten didanean, doinu bat, testu bat, lagundu ahal izatea niretzat oso ederra da.

Zer ikusiko du Maiatzaren 4an zure Orioko kontzertura joaten denak?

Nire kantuak entzungo dituzte, bai azken diskokoak bai lehengokoak ere, inoiz plaza baten entzun ez direnak. Benitoren bat edo beste entzutea ere posible da.

Orion kontzertua eskaintzea, gainera, niretzat bataio moduko bat izango da. Hemen bizi naiz joan den 23 bat urtetan, berezia izango da, ziur.



“*Klik* bat egin nuen eta esan nuen, nik naizena erakutsiko dut. Ikusiko dut gero jendeari gustatzen zaion edo ez.”

“Beste alorretan gatazkak sortzen diren bezala, musikan inoiz baina hobeto moldatzen gara.”



Kontzertu honetan lagun izango ditut Ander Ederra gitarrarekin, Amaiur Cajarabile baxuarekin, Ander Zulaika baterian eta Gratzina Lertxundi, teklatuan, flautan eta ahotsa jartzen.

Alabarekin taula partekatzea berezia izango da zuretzat.

Egia esan hasi ginenean, harritu egin ninduen. Pianoa ikasten zuen haurra zela eta gainean egoten nintzen ikasi zezan. Azkenean, nazkatuta atzetik ibiltzeaz, esan nion, ados, ez jo gehiago. Hori esan eta ohartu ginen kanpora joan eta itzultzen ginenean pianoa jotzen egoten zela. Isilpean, baino pixkanaka kantatzen ere hasi zen. Kantatzea ere betidanik izan du berezkoa etxean eta... Frogatzen hasi ginen elkarrekin eta ondo joan zen. Lanean jartzen garenean serio jarduten gara.

Gatazkarik ekarri du ama alabak izateak?

Beste alorretan gatazkak sortzen diren bezala, musikan inoiz baina hobeto moldatzen gara. Uste dut ariketa honetan ondo pasatzen dugula elkarrekin.

Zerbait zuzentzen diodanean edo beste era batera egiteko eskatu, ondo hartzen du eta gogor saiatzen da. Oso gustura nago berarekin bide honetan.

KANTAITA ENEA

Abeslariak eta musikariak izateaz gain, orain diskoetxe propioa duzue.

Urte dezente daramagu lanbide honek duen alde bakarra jorratuz, artistikoa, nolabait esateko, bainan badu beste alde, industriarena. Gauza batzuk ulertu nahian hasi ginen eta konturatu ginen atal horiek oso alde batera utzian genituela, eta garaia zela horiek jorratzeko eta gure ibilbidearen alde guztiak ezagutzeko. Aukera etorri zen Benitoren disko berriarekin, Gratzina ere ikasketak bukatzeaz zegoen eta ni ere aukera lantzeko gogoz.

Zaila al da horrelako lana zuen kantari ibilbideekin nahastea?


Lan handia da, lehen besteen esku zegoena ia guztia guk egiten dugu. Emaitza positiboa izan da, baina pena bakarra dugu; lehenago pausoa eman ez izana.

Kantaita Enearen helburua zuen produktu propioak ekoiztea da edo kanpora begirako zerbitzuak eskaini nahi dituzue?

Hurrengo lanen bat nirea izango litzake, baina beno kanpora zerbitzuak emateko ideia ez dago itxia. Horretarako, noski, azpiegiturak eta beharko genituzke baina ikusiko dugu.

Amaitzeko... arpa jotzailea zaren horretan, broma asko jasan behar izan al dituzu?

Ufa, izugarri. Arpa jotzailea, arpa jolea... baina gauza bat esango dizut, arpa ni baino hobeto jotzen duten asko daude Euskal Herrian! Kar kar.



Festa ederra egin zuten 1934ko egun hartan Aian.

Herri txiki, infernu handi

A ginagako 'Herri txiki, infernu handi' ikusi genuen duela gutxi ETB1en. Historiaren joanean, herri barruko gatazkak bai, baina muga egiten duten herri txikien artekoak ere asko izan dira. Gehienek gehiago dute komediatik tragediatik baino. Ika-miken adibide asko dago. Azpeitia eta Azkoitiaren artean, Loiolako Inazioren jatorria bereganatzeko. Pasaiaiko sanjuandarrek esan ohi dute San Pedrok duen onena aurrean San Juan edukitzea dela; sanpedrotarrek itxaferoak zuzenean botatzen omen zizkieten bestaldekoiei...

Zarauzko eta Getariko arrantzaleek auzia izan zuten 1878an, batera harrapatutako baleak norentzat behar zuten erabakitzeko. Mutrikuarrak eta ondarrutarrak ere liskarretan ibili ziren 1888an; ondarrutarrek, estropada irabazita, Debako musika-bandarekin ospatu nahi zuten garaipena; baina ezin izan zuten, mutrikuarrek harrika hartu zituzten Debako musika-bandakoak, eta herritik pasatzen utzi ez.

Orioko historian ere badaude haserrean adibideak, gehienak arraun girokoak: 1911n, getariarrak Mendibeltzeraino etorri ziren, irabazitako bandera handik oriotarrei erakustera. Donostiako arraunzaleek, 1915ean, San Martin kalean Orioko traineruaren hileta antzestu zuten, prozesio eta guzti. 1983ko banderak Orio eta Zumaiaren artean ekarri zuten okasioa. Orion bertan, boladetan, hainbat tirabira izan dira Orio eta Ortaizkaren artean, estropada garaian.

Garai batean Zarauzko musika-plaza izan ohi zen Getariako eta Orioko mutil gazteen arteko borrokatokia. Testosterona kanporatzeko modu hoberik bilatzen ez, eta muturrekoka konpontzen zituzten elkarren artekoak. Elkar tentatzeko esaldi eginak ere badauzkate bi herriotan: *Hara, hi, ijitoak*, getariarrak, eta *Getari, joiok zakila paretari oriotarrak*.

Aiak bandera bat du arraunean irabazia, 1934an bateletan. Lau mutilak baserri berekoak ziren,

Oribarzarrekoak: Pedro eta Juan Aizpurua anaiak eta Modesto eta Gregorio Makazaga anaiak. Batelak oraingo tren-geltokiaren izen berbera zuten: Aia-Orio. Mutil haiek zer ziren, aiarrak edo oriotarrak? Auskalo! Estropada jokatu arte dena ondo joan zen. Eztabaida gero sortu zen: non utzi bandera, Aian edo Orion? Baserria Aiako udalerrian dago, batela eta arraunak Oriokoak ziren; eta bi herriek nahi zuten bandera herrirako. Azkenean, Aiako Udalak ontzia eta arraunak erosita, bandera gora eraman zuten.

Gatazka serioagoa izan zuten 1951-52an. Oribarzar, Altxerri eta Arratola inguruko 24 baserri Aiatik desanexionatu eta Oriora pasatzekotan egon ziren. Hori gauzatzeko, hainbat bilera eta joan-etorri egin ziren. Inguru horretako etxe jabeak botoa ematera ere iritsi ziren. Espainiar Gobernuako Ministroen Kontseiluak desanexioa onartu zuen; baina, zenbait arrazoi tarteko, dena bertan behera gelditu zen.

Aiarrek asteasuarrekin ere izan zuten tirabira bat, tartean apustu bat zela. Beste askotan ez bezala, auzi hura ondo bukatu zen, istilurik gabe, eta zergatik eta aurten 100 urte hil zen Pello Errotaren bertso batengatik.

Asteasuko behiak lehian aritu ziren Aiako idien kontra. Asteasukoek galdu egin zuten norgehiagoka; eta hango jendeak diru franko ere bai apustuetan, tartean Pello Errota bertsolariak. Aiarrak zirikatu egin zuten Pello, kantatu zezan eskatuz. Halako batean, kantuz ekin zion: *Kantauko izuet bañan, ez oso umorian, gizona tristia dek galdu ondorian, etorri gaituk zerbait eiteko idian, lapurrik ateratzen bazaigu birian, marabedirik ez dek nire poderian*.

Aiarrek bertsoa entzunda esan zioten txapela pasatzeko. Apustuan galdutakoa baino diru gehiago bildu zuten bertsolariak. Hark ekarri zuen egun hartako bakea.

Gatazka guztiak bertsotan konpontzen bagenek, orduan bai ederki!

Oroimenaren kutxa

edertegia
ANTILLA
juleta
 Abeslari Kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

ARISTERRAZU
 jatetxea
 Andatza auzoa - AIA
 Tel. 943 83 45 21

Gabon
 TABERNA
 ✓ Pintxoak
 ✓ Plater konbinatuak
 ✓ Ogitartekoak
 943 83 06 09

arkaitz taberna
 ... uru ...
 - EGUNEKO MENUA
 - OGITARTEKOAK
 - PINTXOAK
 - PLATER KONBINATUAK
 - KARTA
 Terraza ederrarekin
 giro ezin hobea
 abeslari kalea 6 - 943 831 657

PIZZERIA

KALETA
 ARRANTZALE KALEA, 10
 TELEFONOA: 943 24 89 46

SU KIA
 TABERNA JATEXEA
 On egin eta gero... karta KOPA eta TOPA!!
 - OILASKO ERREKAK ERAMATEKO
 - EGUNEKO MENUA
 - EGUNKARIAK
 - OGIA
 TP. 943 832 02
 ABESLARIEN 36, 1. SAUJA

Portu
ERRETEGIA
 Sando Erreka Auzoa, 10
 943 89 44 04
 20809 AIA-ORIO
 kaskak laseriko oihetan
 jantzi erretetik egiten

ASADOR
XIXARIO
 Eskola Guteran Kalea, 2
 Tel. 943 830 819 - ORIO

ITZALA
 kartela jokatzen
 apropos
 tel. 943 83 12 59

ETXeko BEREZITASUNAK
ARRAIN ZOPA
PARRILA
BODEGON SARASUA
 ERRETEGIA
 Enko Guderi Kalea, 29-20810 ORIO - Tel.: 943 83 00 05

KOLON TXIKI
 antzitegia
 jatetxea
 Herriko Enparantza, 4
 ORIO
 Tel. 943 83 00 44

KAFETEGI-OKINDEGI-GOZOTEGIA **GELATTO**

 Izozki naturalak - Opilak
 943 578 176
 Herriko enparantza

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAK

 943 83 05 37 / 943 83 27 47

kutixi
 kafetegia
 GOSARI GOKOAK
 Antzaga 5, 20810 Orio
 Tel. 943 13 15 17

niko
 taberna
 Karta - Pintxo tradizionalak
 Okindegia
 Palota Kalea, 5 - 20810 Orio - Egin erreserba 943 53 61 27

egin zaituz laguntzailer
Karkara






AIAKO TXAKOLIN EGUNA

Hilaren 14an, igandearekin Txakolin Eguna ospatu zuten Aian. Bisitariz eta aiarrez bete zen herriko plaza. Jaiaren hasieran euri tanta batzuk egin bazituen ere, giro ederra izan zuten Txakolin Egunean, baita bapo jateko eta edateko aukera ere. Hamabost upategik hartu zuten parte eta bi txahal erre zituzten burruntzian.

2019ko apirilak 14ean




Jendetza bildu du 21.Korrikak Orion

Goizaldean, motorrak berotzeko, Korrika Txikiak hartu zuen herria. Orioko Herri Ikastolako eta Zaragueta Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek hartu zuten parte.

Eguerdian, euskararen aldeko olatu erraldoiak Orio zeharkatu zuen, *Orio ere euskararen alde* lelopean. Eguraldia lagun, ehunka pertsona elkartu ziren lasterketarekin bat egiteko.





Goazen Orioko eta Aiako errezeta liburua idaztera. Lagunarteko otorduak; paper muturrean gordetako osagaiak eta kopuruak; etxeko jan ohiturak; baratza, errioa eta itsasoa; jatetxeetako sukaldeak... Mahai bueltan gauza asko egin daitezke, interesgarrienak bi: jan eta berriketan egin. Ahal dela ez egin biak batera.

“Antzeman dadila etxeko berotasuna”

Iñaki Azkue Esnal

Legatz kokotxak pil-pilean onddo konfitatuekin



Osagaiak

Kilo erdi onddo
Kilo laurden
legatz kokotxa
Baratxuria
Olioa
Ura edo salda

Edaria:

Arabar Errioxako ardo beltz bat

Nola egin?

Bi ontzitan prestatuko ditugu legatz kokotxak eta onddoak. Legatz kokotxei ohiko moduan egingo diegu pil-pil saltsa: baratxuria zatitu, oliotan jarri eta baratxuriak kolore pixka bat hartu arte erregosi; ondoren, baratxuri aleak kendu eta kokotxa gehitu. Saltsa loditu arte eragin behar da, salda edo ura gehitu eta prest izango dugu pil-pila. Baratxuria bakarrik erabiliko dugu onddoekin ere. Oliotan jarri eta onddo laminatua gehituko diogu. Sua indar txikian jarri poliki-poliki konfitatzeko.

Platera mahairatu aurretik ontzi batean nahastuko ditugu onddoak eta kokotxak. Garrantzitsua da mantso-mantso berotzea, kokotxen pil-pil berdeari kolore marroizta emango diote onddoek.

JON AGIRRESAROBÉ

Errotaburun izan gara, Donostian, ogasuneko bi dorre erraldoien bueltan. Bi oinarri indartsu batzen dira Vasquito tabernan eta jatetxean: etxeko indarra eta Iñaki gazte sukaldariaren *amor propioa*. Hogeita lau urterekin bere etxea zabaldu du Orioko gazteak, eta urtebetean kritika onak jaso arren ez dago konformatzeko. Gaur astelehena da, arratsaldeko bostak, eta sukaldeko lanetan harrapatu dugu etxeko nagusia.

Basque Culinaryko hirugarren promozioeko sukaldaria zara. Ikasketaz ere sukaldaria, alajaina.

Umetan erreferente handia izan nuen etxean: amona Lorentxa Getariako Larrañaga hoteleko sukaldaria zen, gaur egun Elkano jatetxearen lekuan zegoen sukalde hura.

Neroni, 15 urterekin hasi nintzen Balea hotelean lanean, patata zuritzea eta ontziak garbitzea izan zen nire lehen lana. Gustuko nuen sukaldea eta hemezortzi urterekin zapaldu nuen Basque Culinary Center.

Herriko jatetxeetako parriletan ikusi izan zaitugu lanean.

Ikasketak eta lana uztartu izan ditut beti, etxe guztietan ikasten baita zerbait. Orion Xixarion eta Joxe Marin, Getariako Elkanon, Anjel Leon maisuaren Aponineten Puerto de Santa Marian eta Londresko The Clove club etxeetan aritua naiz.

Duela zazpi urte osaba Jose Luis Esnal *Baxerrik* La Borda del Vasquito zabaldu zuen Baqueiran. Jendeak hemendik eramandako arraina eta generoa estimatzen zuela ikusita bigarren bat zabaldu genuen Viella herrian.

Hondartzan jatetxea izatea bezala izango da hori, denboraldi baterako lana.

Hala da, elurraren zain beti, zuritu gutxiegi eta gehiegi txarra izaten da. Horregatik hiriburu baten aldeko apustua egitea erabaki genuen, eta Donostia aukeratu. Baina Vasquito Errotaburun dago, auzo apala da, babes ofizialeko etxe asko dago hemen. Hiriburuan gaude, baina hona etorri egin behar da.

Egia esanda, jatetxe berria arrankatzea kosta egiten da, baina apirilaren 17an egin dugu urtebete eta jendea erantzuten ari da.



Baxerri osaba-ilobak Donostiako Vasquito jatetxean.

“Jendeak hemendik eramandako arraina estimatzen zuela ikusita bigarren bat zabaldu genuen Viellan.”

“Bisitariak asko eskatzen ditu legatz kokotxak.”

Baxerriñekoen marka da Vasquito.

Bai. Bezeroa etxean sentitzea da gure lehen egitekoa; ama, osaba, lehengusuak elkarrekin ari gara lanean eta antzeman dadila gure etxearen berotasuna.

Kalitatezko generoa darabilgu eta erakustea gustatzen zait: kristalezko bitrinan izotzetan daude arrainak, bezeroak aukeratu eta konfiantza izan dezan.

Generoaz hizketan hasi garenez, eskaintzari begiratu bat eman eta ugaritasuna nabarmentzera ausartzen naiz.

Zeinek dauka arrakasta gehien?

Eskaintza ugaria da: barran, menuan edo kartan dagoena ondo lantzea gustatzen zait, maitasun handia jartzen diogu plater bakoitzari.

Bisitariak asko eskatzen ditu legatz kokotxak pil-pilean ondo konfitatuekin, baita lore motako arrautzak patata kremarekin, foie freskoa plantxan eta trufarekin, eta inguruan ezagunak diren arrainak: bisigua, erreboiloa, muxarra, angula, zentoiloa, bertako bogabantea...

emakume arropa - neurri bereziak
kinkiladenda - barruko arropa



15eko Ankeritas familia agerian ezartzen ditu

Eusko Gudari, 9 - Orrio
943 134 889 argine/jantziak



Tel. 943 83 31 03

ITZIAR KIROLAK

Reebok **ALTUJ** *trang@world*

adidas **B** **CRUC** **CMF**
STORE

KAIJOA

Arropa
Oinetakoak
Osagarriak

Arantzale kalea, 1 ■
T 943 24 885
ORIO (Guzulak)

Zorrita kalea, 18 ■
15. Paratiko kalearekin elkarrekin
T 943 02 034
ZARAUZ (Guzulak)

Erribera kalea, 10 ■
T 943 90 023
ZUMARRA (Guzulak)

Ferni bidea, 1 ■
T 943 02 075
Agella (Guzulak)

www.kaioa.es



Orioko
Herri
Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net



mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: - 943 572 083
FAX - 943 571 190
Lasenjo@hotmail.es

INES ASENJO
ABESLARI, 1
20810 ORIO

PERTSIANAK

A K O M A Z



Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

libe
dietetika
elikadura aholkularitza



eusko gudariak 35 :: ORIO
[sarrera Arrantzale kaleatik]

943 53 64 94 :: 697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com

Katu Horia
abaitzaritza kishira



ESTROPALARI, 10
20810 ORIO

LARRIANDIAK
943 11 66 99 888 88 11 28

www.katuhoria.com

itzilizaso@gmail.com
Tel: 943 83 07 84



Lizaso Dekorazioa
Eusko Gudari, 48 20810 Orrio

LEUNDA
OKINGEDIA



ORDUTEGIA

ESTELERENETIK LARRIANDIAK 7:00 - 20:30
KONDE ITE JAI EGUNETAN 7:00 - 13:30

Tel: 943 89 66 67

BODEGAS
Gailur

Galariako Txetxak
Tel: 943 83 03 88
Fax: 943 83 94 92
www.txetxakgailur.com
Arabar Erriseta

ZUDUGARAI



Galariako Txetxak
Tel: 943 83 03 88
Fax: 943 83 94 92
txetxakgailur@hotmail.com
www.txetxakgailur.com

azkue
karrozeria



Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orrio
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com



Arditik ardira, historiaren artilean barrena

Aian mendez mende eta belaunaldiz belaunaldi ehundutako historia eta ondarea jaso dute Ardi Jolasean.

63 laukik osatzen dute jolasaren zirkuitua, eta herriaren irudikari kolektiboak barnebiltzen dituen pertsona, gertaera eta lekuak islatu dituzte taula erraldoian.



TESTUA: AIORA LARRAÑAGA ETA DORLETA AGIRIANO

ARGAZKIAK: AIORA LARRAÑAGA

Bihotz itxurakoa da Aia; Pagoetak, Iñurritzak eta Oriak babestutako 56 km²ko bihotz berdexka bat. Hamaika muskuluk josten dute haren metabolismoa, auzo forman: Alde Zaharrak, Arrutiegia, Kurpideak, Etxetaballak, Iruretaegiak, Olaskoegiak, Andatzak, Santio Errekak, Laurgainek, Altxolak, Urdanetak eta Elkanok. Mendez mendeko eta belaunaldiz belaunaldi, guztien arteko uzurdura erritmiko eta etengabeen bidez eragin dituzte Aiako taupadak. Aiako historia bizi-biziaz marraztu dute eta haren lekuko izan dira, urteak joan eta urteak etorri.

Dema plazaren sabaian kokatutako Aiako Ardi Jolasak, uzurdura erritmikoen bidez baino, erruletaren erritmora eta esanera taxutzen du bertako historia. Iraganetik orainera jauzi egiteko aukera ematen du, nekez eraikitako historian barrena. Laukitxo batetik

bestera mugitzean, mende batetik bestera, aro batetik bestera salto egin daiteke, segundo gutxi batzuen buruan. 13 metroko luzera eta 6 metroko zabalera dituen jolas horrek biltzen du denborak higitu ezin duen Aiako historia, *edo agian, historia baino gehiago, Aiako istorioak*, Eneko Sainz sortzaileetako batek azaldu duen moduan. Zenbaezinak diren istorioak eta urte luze eta amaigabeak, 836 baldosatan jasoak, gordeak eta izoztuak.

Laupauso Estudioko Asier Erguinek eta Esti Lizarretak, Eneko Sainz historialariak eta Nekane Arrizabalaga Aiako alkateak sortu zuten Ardi Jolasa, *elkarlanean eta talde lanean*. Aiako historia eta ondarea nolabait jasotzea eta azaltzea da helburua, herrian pisua izan duten gertakarien, pertsonen zein lekuen inguruko zertzelada batzuk emanez. Jolasaren sorkuntza prozesua historiaren dinamika bezalakoa izan da, sortzaileen arabera; luzea, aldakorra eta bizia.



63 lauki, 63 islada

63 laukiz osatutako zirkuitu bat barnebiltzen du jolasak. Antzara Jolasaren arau berdinak ditu, baina antzaren orde, ardiak daude irudikatuta; zubien orde, errotak, ur putzuaren orde, elur zuloa, eta ostatuaren orde, Iturriozko Benta zena. Helmugara lehenengo iristen denak irabazten du partida. Jokalari bakoitza da pieza, eta erdian kokatuta dagoen erruletak betetzen du dadoaren funtzioa, jolasaren erritmoa eta pertsona bakoitzak historian barrena biziko duen bidaia markatuz.

Taula erraldoiko baldosak islatzen dituzten pintzelada historikoak eta kontaketa kolektiboak hautatzeko, bi alde dituen prozesu bati heldu zioten jolasaren sortzaileek. Alde batetik, Aiako Udalaren agiritegiko dokumentuak aztertu zituzten; bestetik, *herrian bolo-bolo dabiltzan istorioak hartu genituen oinarri*, adierazi du Sainzek: *Aiako irudikari kolektiboan dagoen kontaketa bildu nahi genuen*. Herritarrek bildu ziren, *agirietan agertzen ez dena jasotzeko*, Erguinen esanetan. Modu horretan izan zuten, esate baterako, Amona Juliana delakoaren berri: *Astoaren gainean etortzen zen Aiara, eta gozokiak banatzen zituen. Oso maitatua zen herrian*.

Hala, pixkanaka, Aiaren iragana eta oraina ehundu duten hariak aurkitu zituzten, eta ahoz aho zabaldutako istorioak itzalpetik argira ateratzeko abagunea sortu zuten. Esate baterako, Gabino Alustiza alkate ohiari omen txiki bat egin diote jolasean: *Errepublika garaian izan zen alkate, eta Gerra Zibilean atxilotu eta fusilatu zuten*, azaldu du Sainzek. Fermin Gilisagasti ainguragilea da baldosetan ageri den beste pertsonetako bat. Espioitza lanak egin zituen Herbereetan; hango teknikak Aiara ekarri, eta bertako burdinoletan landu zituen. Leon Txiki aizkolari eta apustulari famatua ere irudikatu dute; Kortaturen lan bateko azalean agertzeagatik ezaguna, eta baita Jose Miguel Maiz korrikalaria ere.

Arrizabalagaren arabera, pertsonaia historikoez gain, *auzoak eta leku sinbolikoez pisu handia dute jolasean*; eta gainera, ardi bakoitzean, *herrian garrantzia izan duten ofizioei eta herri kirolei erreferentzia* egiten zaiela nabarmendu du. *Aia landa-munduarekin soilik dagoela lotuta uste dute gehienek, baina historikoki, lotura handia izan du itsas-munduarekin, eta hori ere erakutsi nahi genuen jolasean*, esan du Sainzek. Itsas-munduak aiarrak izan dituzten lanbideetan eragin handia izan duela azaldu du historialariak: *Adibidez, Aian itsasontziak egin izan dira Pagoetatik hartutako zurarekin, eta ontziolak zeuden Santio inguruan. Angulazale ere aritu dira asko, eta baita balearen ehizan edota arraunean ere. Harriarekin, lurrarekin eta urarekin du lotura Aiak*, gehitu du Arrizabalagak.

Abiapuntua kobazuloetan

Baina Ardi Jolasean nondik eta nola hasten da hain denbora luzean eraikitako narrazio hau guztia? Zein da abiapuntua? Sainzek adierazi duenez, Altxerriko

“Herrian garrantzia izan duten ofizioei eta herri kirolei erreferentzia egiten zaie.”

“Idazten ez dena galdu egiten da. Ardi Jolasean jaso dugun kontaketa jasota dago, betirako.”



haitzuloa da taulako lehenengo laukitxoa, eta hor hasten da jolasa. 2008. urtean Gizateriaren Ondare izendatu zuten Altzerri. Inguruko kobazuloetan bezala, bisonteen eta oreinen margoketak aurkitu dituzte bertan, baina baita arrainenak eta hegaztienak ere. *Ez dugu Aro Garaikidea soilik landu. Historiaurrea ere ukitu dugu nolabait, eta baita Erdi Aroa eta Aro Berria ere, gaineratu du historialariak.*

Castelloko enpresa batek egin ditu baldosa guztiak, eta Erguinen arabera, *marrazki handiak egitea eta xehetasunak nabarmendu ahal izatea ahalbidetu du formatuak. Irudi errealistak direla iritzi du, gure ingurua erakutsi ahal izateko sortuak, gure ikuspegitik, noski.*

Dena den, irudi bakoitzari txertatu dioten azalpenari

garrantzia handia eman dio Sainzek: *Idazten ez dena galdu egiten da. Ardi Jolasean jaso dugun kontaketa hemen jasota dago dagoeneko, betiko. Aiako garai desberdinak islatzen dituen dokumentu handi moduko bat da.*

Aiako Lardizabal Herri Eskolara joan ziren jolasaren sortzaileak, eta garatutako proiektua azaldu zieten ikasleei. Hurrengo pausoa Ardi Jolasaren mahai jokoa kaleratzea izan da: *Guztiok jolasaren islada bat etxean eskura izatea da asmoa, esan du Arrizabalagak.*



Karkara³⁰urte

karkara.eus



Klinka eta klika

Ana Gonzalez de Etxabarri Exposito

“Lerro bukaeran, klink egiten zuten, zuk zeuk eragin behar zeniola hurrengoa hasteko abisatuz”.

Antiajuen kristalen atzetik, harridura amonaren begietan: tabletaren gainean haurraren hatzak gora eta behera, tap-tap hemen, irrist han... pantailan joan eta etorri dabiltzan irudiak nola maneiatu txikiak begira...

Aurreneko KARKARAK idazmakina egin genituen. Bai, horiexek, Olivetti eta halakoak. Teklei gogor sakatu idazteko eta, lerro bukaeran, klink egiten zuten, zuk zeuk eragin behar zeniola hurrengoa hasteko abisatuz, kanpai soinu adeitsu eta alai harekin. Konta ezin zuzenketa eta paper pila alferrik bota eta gero, lortuko zenuen, noizbait, zerbait itxurosoa.

Inprentara bidali eta gero ezin jakin zer etorriko zen bueltan, oso zaila egiten baitzen, orri multzo ederra eta argazki mordoarekin zer aterako zuten handik inprimategian irudikatzea. Ilobaren trebeziaren aurrean amonak bezala, miraria balitz bizitzen genuen aldizkari bakoitza esku artean izateko zoriona; baina zerbait falta ala okerrik bazen, horrek sortutako atsekabeak egunak irauten zigun.

Gaur, etxean idazten ari naiz, eta hori egiteko trepeta berak balioko dit Karkarara aitaren batean bidaltzeko idatzi hau, garbi eta txukun, eta gauza bera egingo dute Karkarakoek testuekin eta argazkiekin aldizkaria osatzen dutenean... klink-ik gabe, klika batean.

eta hamaika bitxikeria



Iker Gurrutxaga

*Toki gutxi eta asko
kontatzeko*

"Redondotik, Redondora. Jonekin eta gainerako politikariekin izandakoak ere ezin ahaztu".

KARKARAREN Ana eta Jabier, Jabier eta Ana. Nire euskara irakasle kuttunak. Gauzak idaztean, esatean, ea hartzaile guztiek ulertuko ote didaten galdetzen diot nire buruari, KARKARAn idatziak Anaren amak ulertu behar zituen bezala. Informazio aukeraketan berdintasunaren aldeko lana ezin ahaztu. Argazkiak egitean, gaiak aukeratzeko... Emakumeek gizonetako adina toki izaten saiatzen ginen.

Herriko erregearen, arraunaren, inguran ere gogoan dut halako eztabaida bat taldean. Jose Luis Kortak banderen errekorra ezarri zuenean. KARKARAREN azala hari eman behar zitzaiola nion. Oriok oraindik zor zion aitortza zela, bere apalean. Baina, haren orde, "Harrobian esperantza jarrita" izeneko azala jarri genion 264. Karkarari, Urko Redondo arraun txikia sartuz.

Redondotik, Redondora. Jonekin eta gainerako politikariekin izandakoak ere ezin ahaztu. Markel Olano ezagutzeko aukera izan nueneko, lehen plenoan alkateak esanak, idatzitakoen gainean izandako kargu hartzeak... EAJri egindako elkarrizketa izan zen nire azkenetakoa, 2013an, Irati lagun. Zaldua tartean. Hura ere ez dut ahaztuko. Sei urte ez dira alferrik pasa alajaina. Ea sei urte baino lehen berriz ere orrialderen batean tokitxoren bat egiten didan KARKARAK.

LUXARBE

igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe.

Lan txukuna eta merkea.

Tfnoak: 943 83 59 00



TXUKUN LORAZANTZA, S.L.

Lorezaintza
Mendiko lanak
Indusketak
Itxiturak

Tel. 660 332 756 - 679 428 851

txukunlorazantza@hotmail.com




PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripaki, odolki, txokoma, txorizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

Azaskun Estankoa

Tabakoa - Prentas - Eskola materiala
Opariak

Atletzetatik estankoa
8:00-13:00 - 17:00-20:00
Luzanbatetan eta igandetan
8:00 - 13:30

Eusko Gudari, 23 20810 Orio - Tel. 943 831 212

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5



ORIA

hartz klinika

Orto Hartz Klinika: **ORTODONTZIA** zerbitzu berria jami du martxoan.
Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu dume erabakimena on sarratekoen arazoel.

Arrantzale kalea, 63 beheko
20810 ORIO
Tel.: 943 83 36 45



UDA SASOIAN 2019

MILA AUKERA UDARA HONTAN!

KARELA



www.podologia-oinarri.com

943 575 361
Arrantzale 63 · 20810 · Orio

oinarri
PODOLOGIA ZENTROA

OREKA FISIOTERAPIA

Tendinitisak
Lumbalgiak
Artrosia
Zefaleak

Masaje terapeutikoa, bentosak, akupuntura, eskuzko terapia, osteopatia

943 13 35 37
Aizpuru kalea, 11 beheko

Ile apaindegia

MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - beheko
Tel. 943 13 47 29
ORIO

ttipi

ttapa

943259695
tripittapa.oihane@gmail.com
Eusko Gudarien, 15 - 20810 Orio



Zaragueta

Herri Eskola *orio*

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net



INDO

Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagunea, 4
Tel. 943 894 024
Fax. 943 130 144
20809 AIA - ORIO



LARDIZABAL ESKOLA



“Lanerako bidea korrika egiten nuen.”

Joxemari Aldai

Korrikalari ohia

Zergatik hasi zinen korrika egiten?

Familiatik datorkit korrika egiteko zaletasuna. Gure aita zena ere korrika ibilitakoa omen zen gaztetan. Pagoeta mendira korrika joaten hasi nintzen 16-17 urterekin. Etxetik irten eta, lana bukatu ondoren, gurutzeraino joaten nintzen 17 minututan.

Gogorra al zen korrikalaria izatea?

Bai, oso kirol gogorra da. Gure garaian gure kabuz entrenatu behar izaten genuen, eta lanorduz kanpo. Oraingo egoera bestelakoa da, entrenamenduak lanarekin moldatzeko moduan egoten baitira.

Lehen egun guztian lana egiten genuen eta, askotan, etxetik lanerako edo lanetik etxerako tartekak probesten genituen entrenamendua egiteko.

Zein izan da zure ibilbide profesionala?

Hamar urterekin Laurgaingo baserri batetara joan nintzen morroi eta lau urte eman nituen bertan. Ondoren, 16 urtetik jubilatuta arte eraikuntzan aritu naiz.

Nola uztartzen zenuen lana eta atletismoa?

Lana inguruan zenean (Zarautz, Aizarnazabal, Zizurkil e.a.) lanetik etxerako bidea korrika egiten nuen, goizean zein arratsaldean.

Atletismoan zein proba egiten zenituen?

Gehienetan krosa, tarteka pista ere egiten genuen.

Txapelketaren batean parte hartu al duzu?

Gipuzkoako txapelketa bost urtetan korrika egin nuen: Junior mailan bi aldiz, batean lehenengo eta bestean bigarren geratu nintzen; senior mailan hiru aldiz, hirutan bigarren gelditu nintzen.

Inguruko korrikalaririk izaten al zen?

Zarauzko Iturzaeta *Tenterekin* harreman handia eduki nuen, lasterketa ugaritan aritu ginen elkarren aurka. Lasterketatik kanpo elkarren lagun handiak egin ginen.

Horrez gain, beste lasterketarik irabazi al duzu?

1960an, junior mailan, Lasarteko krosa irabazi nuen. 1961ean, senior mailan 3.000 metro hesietan ere parte hartu nuen eta irabazi.

Zer sentitu zenuen zure herrikide Joxe Miel Maizek 1968an Lasarteko krosa irabaztean?

Egundoko poza. Pentsa, Aiako herri txiki batetik Lasarteko nazioarteko krosetako bi txapelkun, ni junior mailan eta bera seniorretan.

Aiar guztientzat ez ezik, gipuzkoar eta euskaldun guztientzat sekulakoa izan zen.



Jokin eta Maialen

Korrika



urten Korrikaren 21. edizioa izan da. Korrika hasiera Garesen izan da eta bukaera Gasteizen. 2019ko apirilak 4an hasi zen eta apirilak 14an bukatu zen.

Guri ondo iruditzen zaigu Korrika egitea, gure hizkuntzari bultzada bat emateko garrantzitsua delako. Euskaldunon artean ondo pasatzeko ekintza bikaina iruditzen zaigu. Gehienetan euskaltzale askok hartzen dute parte, baina kilometro bakoitzean batek bakarrik eramaten du lekukoa. Jartzen duten musikak erritmoa ematen dio korrika egiteari. Gu harrituta gaude gauean ere korrika egiten dutelako. Euskara bultzatzen duten pertsona guztiak oso ausartak iruditzen zaizkigu eta horrela segitzen badute uste dugu nabarmenduko dela euskararen aldeko babesa. Aurtengo kantaren izenburua Klika da, baina iruditzen zaigu ez dela oso aproposa horrelako ekintza baterako, izan ere rap bat da. Gainera ez da oso erraza abesteko.

GORA EUSKARA!!!

Euskara bultzatzen dutenak oso ausartak iruditzen zaizkigu



Nesken saskibaloia taldea

Argazkia 1975ekoa da. Bertan, goian ezkerretik, Txema (lehen entrenatzailea, zarauztarra), Belen Azkue, Luzi, Rosa Velez, Marian Urkizu eta Patrizia Moran. Behean: Soraya Herranz, Ima Azkue, Cristina Baylin eta bi Arantza, Ibarbia eta Arruti. Udalak Juan Zaraguetari jarritako oroitarriaren ondoan.

Urte askoan kirola gizonezkoentzako eremu itxia bazen ere, Orion, emakumezkoak kirolean serio hasteko saiakera egin zuten saskibaloian. Zaragueta eskolako maisu Joakin Aranburu izan zen hasierako lanetan ibili zena. Berak eraturako taldeetan herriko neska askok jokatu du. Urte gutxian, gainera, oso ondo jokatzera iritsi eta maila altua lortu zuten, Gipuzkoako txapelketa irabazi ere bai hainbat urtez.

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

KARKARA



Manuel
 ATORRASAGASTI MANTEROLA
 2018-10-02



Jose Antonio
 ATORRASAGASTI MURUA
 2018-07-05

Zoriak du bere hitza bete,
 joan diren kideak genituen maite,
 BALEAK zuen omenez, Manuel eta Jose Antonio gero arte.

JAIOTAKOAK

- Ane Olaskoaga Miralles, apirilaren 1ean.
- Anton Olaskoaga Miralles, apirilaren 1ean.
- Ali Subhani Shaheen, apirilaren 1ean.

HILDAKOAK

- Milagros Jimenez Blázquez. Apirilaren 7an, 88 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, posta elektronikoz honako helbidera idatzi dezakezu: karkara@karkara.com, erredakziora etorri - Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo deitu gure telefonora: **943 83 15 27**

EZKONDUTAKOAK

- Xabier Portero Tejada eta Jesica Sabrina Lopez, martxoaren 16an.



- > Hilerrien kudeaketa
- > Hileta zerbitzu orokorrak
- > Zerbitzu iraunkorra



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxe: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net



Bertso Txapelketa

Orioko Ikastolako Bertso eskolako bi ikaslek lehen eta bigarren sariak irabazi dituzte Urola Kostako idatzizko Bertso txapelketan. Pasa den ostiralean Karela kiroldegian jokatu zen Gipuzkoako Bertso Txapelketako beste jardunaldi bat; bertan, Urola Kostako umeak eta gaztetxoak elkartu ziren, Oriokoak ere bai, tartean. Amaiur Sukia Yaben izan zen irabazlea eta Manex Guenetxea Manterolak lortu zuen bigarren postua. Gaia: Badut lagun bat konfiantza ematen didana

Doinua: Itxasoari begira

Doinua: Mutil koskor bat itsu aurreko

Badut lagun bat nire alboan atsegin eta apala sekretutxo bat kontatu diot eta berak gorde dezala Ni berarekin fidatu naiz ta esan diot berehala gure harremanak jarraituko du orain artean bezala baina hori bai, hark hurrengoan ongi tratatu nazala.

Txikitatikan daukat lagun bat nire onena jakina beti laguntzen egoten dena hartzen dudanean mina konfiantz dena emanaz eta sendatuz nire ezina hiru bihotzen laguntasuna eta zure ahalegina egin duzun hau ezin da izan lagun txar batek egina.

Ta azkenean esan diozu jende askori jakina baina nolatan izan zaitezke holako zerri zikina momentu hontan nik sentitzen dut bihotz barrenean mina azken aldiak ez zara izan nik uste nuen berdina hau ez zenidan inoiz egingo nire laguna bazina.

Ikasten duen guzti-guztia niri partekatu ahala bera beti da hain atsegina alaia eta apala inperfekzio perfektuekin denekin eskuzabala "beti lagunak izango gara" kontentu esan dezala elkarren ondon biziko gara lagun onenak bezala.

Amaiur Sukia

Manex Guenetxea

Festa Giroan

lazko urteetan bezala, aurtengo San Pedro jaietan ere herria dantzan jartzeko eta festa giroan murgiltzeko asmoa ba al duzue?

Hala bada, zatozte maiatzaren 9an, ostegunarekin, arratsaldeko 19:00tan, Kultur Etxean egingo den bilerara. Bertan, ekainaren 30ean ospatuko dugun arrantzale egunaren berri izango duzu, haiekin eta urte guzti hauean bidean izan direnekin batera 20. urteurrena ospatuko dugu. Izan zaitez zu ere ospakizunaren parte eta azaldu maiatzaren 7an, goizean plazara!

Matrikulazioa zabalik

Haurreskolan matrikulatzeko epea datorren maiatzaren 2an zabalduko da eta irekita egongo da maiatzaren 10era arte.

Matrikulatzeko, haurrak jaiota izan behar du.

Orain matrikulatzen diren haurrak irailean, urrian edo azaroan hasiko dira haurreskolan.

Izena emateko ordutegia hau izango da: goizez, 09:30etik 11:00etara; eta arratsaldez, 13:30etik 15:00etara.

Ate irekietako eguna apirilaren 30ean

Datorren apirilaren 30ean, asteartearrekin, atea irekiko ditu Maria Maestra haurreskolak, barrutik ezagutu nahi dutenek aukera izan dezaten instalazioak ikusteko, hezitzaileekin hitz egiteko eta, oro har, informazioa jasotzeko. Bisita-ordua arratsaldez izango da, 17:00etatik 18:00etara.



Txurrumuski begirale bila

Izen-emate epea zabalik

Uztailean eta abuztuan begirale lanetan jarduteko prest daudenentzat deialdia zabaldu du Txurrumuski aisialdi elkarteak. Hautaketa prozesuan sartu ahal izateko ezinbestekoa da 16 urte beteta izatea eta euskaraz erraztasunez egin eta komunikatzeko gai izatea. Bestalde, kontuan hartuko dituzte haur eta gazteen aisialdiko begirale-zuzendari tituluak izatea, Oriotarra izatea, talde harremanetarako abilezia izatea eta urte guztian zehar elkartearekin lanean jarraitzeko interesa izatea. Izena emateko bete beharreko inprimakia, karkara.eus atarian. Dokumentua maiatzaren 14a, astelehena, baino lehen bete behar da.



Aiako Landare Berezien Azoka

Apirilaren 27an eta 28an, 17.edizioa

Apirilaren 27an eta 28an, XVII.Landare Berezien Azoka egingo dute Pagoeta Natur Parkeko Iturarrango Lorategi Botanikoan. Urtero bezala, munduko txoko desberdinetako landareak ikusteko, eta nahi izanez gero erosteko aukera izango dute herritarrek.

Guztira 50 mintegik eman dute izena, eta bertaratutakoek kontinente guztietako landareak ikusi eta erosteko aukera izango dute bertan. Ekimena Iturarrango Lorategi Botanikoan izateak *izaera berezia* ematen dio azokari, antolatzaileen esanetan, *ingurua paregabea delako horretarako*.

Azokaz gain, bisita gidatuak eta hitzaldiak ere antolatu dituzte, landareak eta ingurumena ardatz hartuta. Jan eta edateko postuak ere jarriko dituzte, eta bertako produktu gastronomikoak ere erosi ahalko dira; haurren gozamenerako, jolasgunea egokituko da azokaren barruan.

Boluntario gisa lagundu nahi izanez gero, edo informazio gehiago lortzeko, 943 83 53 89 telefono zenbakira deitu daiteke, edo iturrraran@gipuzkoamendizmendi.net helbidera idatzi.

Orion

Kinto afariak

1982an jaiotakoak

1982an jaiotako oriotarrek kinto afaria egingo dute maiatzaren 25ean, larunbata. 19:00etan Errusta tabernan jarri dute hitzordua, eta Aiako Errota erretegian afalduko dute gero. Bertaratzeko asmoa dutenek izena eman dezakete dagoeneko, Olatu goxoki dendan.

1979an jaiotakoak

Ekainaren 1ean, larunbarekin 79an jaiotakoen bazkaria egingo da. Plazan elkartuko gara 12:30tan eta ondoren Villa Antilla Hoteleko jatetxean bazkalduko dugu.

Bazkal ostean, musika, fotokola eta giro ona izango ditugu Barakan mokadutxo bat janaz... DJ Gurrurekin!

60€ izango dira pertsonako, izena eman nahi baduzu deitu ezazu 669 08 27 09 mugikorrera. Animatu



Bertsopilota Estatu Batuetan

Ibon Aranalde pilotariaren eskutik

Ibon Aranalde pilotari oriotarrak Bertsopilota ikuskizuna eskainiko du Aste Santuan, Estatu Batuetako hainbat Euskal Etxetan.

Apirileko bi asteetan zehar, Bertsopilota, bertsoa eta pilota zein kitarraz lagundutako kantaldiak eskainiko dituzte, San Frantzisko, Bakersfield, Los Angeles-Chino eta Las Vegasen besteak beste.

Orain bi urte Argentinara egin zuten bidaia berbera eta aurten berriz ere martxan jarri dute proiektua. Lagun talde hau izango da bidaiatuko duena:

Pilotariak, Jon Urbietak, Xabier Urbietak, Iñaki Lizaso eta Ibon Aranalde oriotarra izango dira. Bertsolariak, Oihana Iguaran eta Unai Mendizabal.

AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea:-

Alokairua

• Logela alokagai, Etxebizitza berria eta logela handia, ohe handiarekin, mahaiarekin eta armairuarekin. Etxeak 30 metroko terraza du. Tf: 652551550

• Logela alokatuko nuke Orion. Beste lagunen baten bila ere banabil, elkarrekin etxebizitza bat alokatzeko. Tf: 688690385

Lan bila

• Asteburuetan eta jai egunetan lan egiteko prest. Paperak eta gomendio orriekin. Patricia. Tf: 674 12 32 93

• Ume zaintzan zein etxeko lanak egiteko lan bila dabilen 29 urteko neska euskalduna naiz. Adin desberdinetako haurrekin hezitzaile eta irakasle bezala esperientzia dut. Tf: 638730544

• Neska bat lan bila. Etxeko lanak, umeen zein adinakoen zaintza, garbiketa lanak, asteburuetan zein aste tartean; baita orduka ere. Esperientzia eta erreferentziakin. Tf: 661133295

• Neska euskalduna, haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa egiteko eta klase partikularrak emateko. Lehen hezkuntzan graduatua.

Umeekin esperientzia handikoa.

Tf: 636312231

• Neska lan bila. Barne-zaintzailea, garbiketa lanak eta zaintza.

Esperientziaduna, Orion bizi naiz. Marlin Tf: 632582365

• Ume zaintzan lan egiteko prest dagoen neska oriotarra naiz. Tf: 676441327

• Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketa lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tf: 642696038

ITSASOA

	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	03:15 eta 15:41	09:20 eta 21:35	☉
02	03:53 eta 16:15	09:57 eta 22:12	☉
03	04:28 eta 16:47	10:31 eta 22:46	☉
04	05:01 eta 17:19	11:05 eta 23:21	☉
05	05:34 eta 17:51	11:38 eta 23:55	☉
06	06:08 eta 18:25	12:13 eta ____	☉
07	06:44 eta 19:01	00:32 eta 12:50	☉
08	07:23 eta 19:42	01:12 eta 13:29	☉
09	08:08 eta 20:38	01:56 eta 14:14	☉
10	09:00 eta 21:24	2:46 eta 15:07	☉
11	10:05 eta 22:34	03:47 eta 16:10	☉
12	11:24 eta 23:55	04:59 eta 17:26	☉
13	12:47 eta ____	06:18 eta 18:44	☉
14	01:14 eta 13:59	07:31 eta 19:55	☉
15	02:21 eta 14:57	08:33 eta 20:54	☉
16	03:17 eta 15:47	09:25 eta 21:45	☉
17	04:06 eta 16:31	10:12 eta 22:31	☉
18	04:51 eta 17:13	10:54 eta 23:14	☉
19	05:33 eta 17:52	11:34 eta 23:56	☉
20	06:13 eta 18:31	12:13 eta ____	☉
21	06:53 eta 19:09	00:37 eta 12:52	☉
22	07:32 eta 19:48	01:18 eta 13:31	☉
23	08:13 eta 20:30	02:00 eta 14:12	☉
24	08:58 eta 21:16	02:45 eta 14:57	☉
25	09:51 eta 22:12	03:35 eta 15:50	☉
26	10:55 eta 23:18	04:34 eta 16:52	☉
27	12:07 eta ____	05:40 eta 18:02	☉
28	00:29 eta 13:15	06:46 eta 19:08	☉
29	01:32 eta 14:10	07:44 eta 20:04	☉
30	02:25 eta 14:55	08:33 eta 20:52	☉
31	03:10 eta 15:35	09:15 eta 21:34	☉

ZAINTZAKO BOTIKAK

MAIATZA:

- 1ean, Larrañaga.
- 2an eta 3an, Lasa.
- 4an eta 5ean, Esparza.
- 6ean, Etxeberria.
- 7an, Gaminde.
- 8an, Larrañaga.
- 9an, Lasa.
- 10ean, Redondo.
- 11an eta 12an, Gallo.
- 13an, Lasa.
- 14an, Larrañaga.
- 15ean, Iturria.
- 16an, Lasa.
- 17an, Gallo.
- 18an eta 19an, Iriarte.
- 20an, Larrañaga.
- 21ean, Iturria.
- 22an, Gaminde.
- 23an, Lasa.
- 24an, Etxeberria.
- 25ean eta 26an, Zulaika
- 27an, Esparza.
- 28an, Iturria.
- 29an, Gallo.
- 30ean, Lasa.
- 31an, Zulaika.

Etxeberria: Gipuzkoa kalea,17.

- 943 83 23 98 Zarautz
- Esparza:** Santuiturri plaza, 5-6
943 50 47 83 Zarautz
- Gallo:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- Gaminde:** Gipuzkoa Kalea, 68
943 12 40 19 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo
Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- Iturria:** Kale Nagusia, 12.
943 83 29 70 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16.
943 13 38 14 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza.
943 83 09 36 Orio
- Redondo:** Urdaneta kalea, 8.
943 13 31 83 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41
943 13 39 94 Zarautz



Hautagaiak mahai-inguruan

Maiatzaren 26an udal hauteskundeak izango dira. Alderdiek adostu dituzte zerrendaburuak eta berekin lanean arituko diren taldekideak ere. KARKARAK hauteskundeei begirako mahai-ingurua antolatu du, ohi bezala. Maiatzaren 8an izango da, 19:00ean, Orioko Kultur Etxean. EAJ, EH Bildu, Orain eta PSE-EE-ko kideak egongo dira.

Orio

Irteerak

- Maiatzaren 4an, Arantzazutik Oriora martxa, 4:00etan. Talai Mendik antolatuta.
- Maiatzaren 4an eta 5ean, Arroil jaitsiera, Guarako parke naturalera (Aragoi), Talai Mendiren eskutik.
- Maiatzaren 20tik 26ra, Kukuarri astea.

Hitzaldia

- Maiatzaren 2an, erretiroari buruzko hitzaldia emango du Luis Perezek, Salatxo aretxoan arratsaldeko 19:30ean.

Musika

- Maiatzaren 4ean, Olatz Zugastiren kontzertua, 22:00etan, Karela Kiroldegian.
- Salatxo, Aiztondo eta Kantuz abesbatzek kontzertua eskainiko dute Orioko elizan, maiatzaren 11n. Gabriel Fauré konpositore frantsesaren

Requiem Op. 48 obra eskainiko dute.

Umeentzat jolasak

- Barraka eguna izango da herriko plazan, Txurumuskik antolatuta, 20. urteurrenaren ospakizun egitarauan.

Hauteskundeak

- Maiatzaren 8an, hauteskundeen mahai-ingurua, alderdi bakoitzeko zerrendaburuarekin. 19:00ean, Kultur Etxean.
- Maiatzaren 26an, udal hauteskundeak.

Aia

Landare Berezien Azoka

- Apirilaren 27 eta 28an, Aiako XVII. Landare Berezien Azoka, Pagoetako Parke Naturalean (Iturraran).

Podologia

- Apirilak 27, podologoaren kontsulta.
- Maiatzak 25, podologoaren kontsulta.

Musika

- Mikel Urdangarinen kontzertua, maiatzaren 18an, larunbatekin, 22:00etatik aurrera, Aiako probalekuan.



Udal hauteskundeak 2019



Anuska Esnal



Lourdes Salsamendi



Jose Angel Iparragirre



Ana Priede



MAHAI-INGURUA



Maiatzaren 8an,
19:00etan
Orioko Kultur Etxean

Moderatzailea:
Xabier Etxeberria

Karkara³⁰urte
karkara.eus

Zuzenean
KARKARA.EUS
webgunean